

IKASLAN GIPUZKOA

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

GIUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea



ikasLAN
Gipuzkoa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko
eta Lurralde Orokako Departamentua

2019ko Ekaina

Aurkibidea

AURKIBIDEA	0
SARRERA	2
METODOLOGIA	3
LAN BALDINTZEKIN ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK (IKUS 3 ERANSKINA GALDEKETAREN EMAITZA GUZTIEKIN)	4
LANARI LOTURIKO ASPEKTU SOZIALAK	7
EGITEN DEN ZEREGINAREKIN LOTURIKO ASPEKTUAK	10
ONDORIOAK	13
1 ERANSKINA: GALDETEGIA	16
2 ERANSKINA: LAGINAREN EZAUGARRIAK	23
3 ERANSKINA: GALDEKETAREN EMAITZAK	31

Sarrera

Askotan entzun izan ditugu hainbat komunikabidetan gaurko enpresak zein motatako langile edo lan profilak bilatzen dituen: halako edo beste modu batetako gaitasunetan trebatutako langileak behar omen dituela enpresak eta horretarako prestatu behar dituela hezkuntza sistemak. Ikerketa honek, planteamenduari buelta eman dio eta hezkuntza sisteman, Ikaslan Gipuzkoako Ikastetxetako ikasleei galdeku die nolako enpresa nahi duten, nolako eszenatokia desio duten lan mundura jauzia egiten dutenean.

Planteamentu hau buruan gauzatu zen Ikaslan Gipuzkoa eta Deustuko Unibertsitatearen arteko elkarlana 2018/2019 ikasturtean zehar galdetegi zehatz batzuk diseinatu eta ikasleei elementu hauen berri galdezko. Metodologia misto baten bitartez aurrera eramandako lanean, elkarrekin diseinatutako elementuak jarri dira mahai gainean eta ikasleek hauen inguruan erantzuteko aukera izan dute.

Datozen orrialdeetan ikerketa honetatik eratorritako ondorio nagusienak aztertzeko aukera izango dugu hiru atal nagusietan jasoak: lan baldintzakin lotutako elementuak, hauen aspektu sozialekin eta harremanekin azkenik. Guztien artean, bada gailentzen den irakurketa bat: gizarte postmaterialistarena. Azken urteetan etengabe entzun dugun teoria hau zalantza izpirik gabe ikusi dugu ikasleen erantzun eta diskurtsoetan. Elementu honek pisu garrantzitsua du gure ondorioen egikaritzean eta begirada honetatik eraiki behar da hasieran planteatzen genuen galderaren erantzuna: nolako enpresa? zein gizartetan? Jarraian azalduko ditugu galdera hauek planteatzen dituzten erantzun posibleak, inkestatutako lanbide heziketako ikasleen ikuspegitik.

Metodologia

Lan hau aurrera eramateko metodologia mistoko lana eraman da aurrera, teknika kuantitatibo eta kualitatiboak konbinatzuz.

Metodologia kuantitatiboari dagokionez, inkesta bat egin da, lanbide heziketako zentro guztiei zuzendua, on line galdetegi baten bitartez bideratu dena. Galdetegi hau ikasle guztiei bideratu zen eta azkenik 935 pertsonen erantzunak jaso genituen, 2019ko otsaila eta martxoa bitartean. Jasotako erantzunen artean %40 emakumeak izan ziren eta %60 gizonak. Adinaren batazbestekoa 23 urtekoa izan da. Zikloen egiturari dagokionez, %37a erdi mailako ziklo bat egiten ari da eta %63a goi mailakoa. Azkenik, %58ak bere ikasketak euskaraz egiten ditu eta %42ak gaztelaniaz. Ikus 1 eranskina galdetegia ezagutzeko eta 2 eranskina laginaren ezaugarriak ikusteko.

Metodologia kualitatiboari dagokionez, hiru eztabaidea taldek osatu dute zati hau. Eztabaidea talde hauek inkestako emaitzak izandakoan egin dira, apirila eta maiatza bitartean, Lanbide Heziketako hiru zentrotan: CIFP Easo Politeknikoa LHII Donostian, CIFP Monte Albertia LHII Zarautzen eta CIFP Miguel Altuna LHII Bergaran. Zentro bakoitzean hamar pertsonako taldeak osatu dira. Taldeen profilak mistoak izan dira, bai genero aldetik eta baita zikloen jatorriari dagokionez, bakoitzak dituen bereizgarri eta ezaugarriak diskurtsoetan ere plazaratzuz.

Txosten honetan jasotzen diren interpretazioaren emaitzak metodologia misto honen ondorio dira, datu kuantitatibo eta kualitatiboak konbinatzearen ondorio zuzena. Datuak batzearekin batera joera argi batzuk ikus daitezke, segidan azalduko diren bezala.

Lan baldintzakin erlazionatutako faktoreak

(ikus 3 eranskina galdekaretaren emaitza guztiekin)

Lan baldintzek berebiziko garrantzia dute ikerketan inkestatutako pertsonen arabera.

Azertutako elementu guztiengabe artean osasun eta segurtasun baldintzak (9,11ko balorazioarekin) eta soldata (9,05eko balorazioarekin) dira elementu baloratuengak. Gertutik jarraitzen diente laneko ingurugiro eta baldintza fisikoak egokiak izatea (8,84), karrera garatzeko aukerak izatea (8,83) edo lan kontratu egonkorra hasieratik izatearen aukerak (8,8). Malgutasun eta kontziliazioarekin lotutako elementuek ere 8tik gorako balorazioa dute inkestatutako pertsonen arabera, hala nola ordutegiak denbora librea gozatzeko aukera eman dezan (8,57) eta enpresak kontziliatzeko aukerak eman ditzan (8,52). Urrunago geratzen dira desplazamendu faltarekin (7), telelana egiteko aukerarekin (6,82) edo enpresaren tamaina handiarekin (6,53) lotutako itemak.

Adierazgarria da, osasun eta segurtasun baldintzek balorazio altuagoa dutela soldatak berak baino. Hala adierazi zuten ikasleek beraiek eztabaidea taldeetan ere. Garrantzia gehiago ematen diote segurtasuna, argia, ergonomia eta osasuna orokorrean modu egoki batean lantzen dituen enpresa bati, soldata handiagoa jasotzeari baino. Eztabaidea taldeetan esandakoek '*gure lanetan ezinbestekoa da ergonomia zaintzea'* '*bestela irabazitako dirua gastatu beharko nuke fisioterapia batean*' hala erakusten dute. Baieztapen hauek, halabaina, salbuespen bat jaso zuten eztabaidea talde gehienetan: duintasunaren maila. Diskurso gehienek bat egiten dute segurtasun eta osasun baldintzak soldataren gainetik azaltzerakoan, beti ere soldata duin bat bermatuta baldin badago, oinarrizko beharrizanak betetzeko nahikoa dena.

Ezberdintasun hau esanguratsua da, agerikoa baita oinarrizko baldintzak garrantzia berezia dutela, batez ere kontziliazioa eta nork bere familia izateko espektatibak tartean jartzen direnean. Aipagarria da talde batean agertzen zen diskurtsoa, zeinetan amatasuna izatean, jardunaldi murrizketa batean ezinezkoa zuen berak bere kabuz

bere proiektu propia aurrera ateratzea. Non dago duintasunaren maila? Elementu hauek zehazten dute ezbairik gabe ortzimuga.

Gauzak horrela, lan baldintzen inguruko balorazioek, bai inkestetan bai eztabaide taldeetan ateratakoek, eszenatoki postmaterialista baten aurrean gaudela erakusten digute. Arestian aipatu bezala, segurtasun eta osasunarekin lotutako elementuek garrantzia gehiago dute, behin duintasuna bermatuz gero, soldatza berarekin lotutako elementuek baino. Eta gauza bera gertatzen da kontziliazioa eta denbora librearen konfiguraziorekin lotutako elementuekin. Nabaria da nola hauek geroz eta tarte handiagoa hartzen duten lan munduan sartuko direnen diskursoetan. Dagoeneko ez da nahikoa enpresak nor bere lanaren garapenerako baldintzak eskaini ditzan, nork bere proiektu pertsonalerako baldintzak ere eskaini behar ditu. Eta horretan gaur egun tokia berezia hartzen dute aisialdi eta kontziliazioak.

Berdintasunaren agendak geroz eta garrantzia handiagoa hartzen duen gizarte honetan, gizon zein emakumeek berebiziko garrantzia eman diote kontziliazioaren gaiari. Denentzako da garrantzitsua bere bizitzako etapa ezberdinatan, umeen jaiotza edo nagusien zaintzarekin erlazionatuta dauden beharrak etortzen direnean, enpresak horretarako baldintzak ezartzeko aukera izatea eta hau neurri zehatzetan adieraztea. Hala jaso zen eztabaide taldeetan esandakoan '*kontziliaziorako baldintzak garrantzitsuagoak dira, egin behar dituzunak egiteko aukera izan dezazun*' aipatzen zenean. Horiek diskurso komunak ziren.

Maila berean kokatzen da nork bere burua zaintzeko beharraren inguruko agenda, XXI. mende haserako gizartean. Eta hau ere jasotzen da ikerketan ateratako emaitzetan. Erantzunek garrantzia ematen diote denbora libreaz gozatzeko aukera izateari eta enpresak hau baloratu eta errespetatzeari ere. Lan jardunaldi amaigabeek ez dute balorazio onik jasotzen. Balorazio hau ez dago kontraesanean konpromisoarekin, jasotako diskurso guztiak adierazten baitute ikasi eta lana egin nahi dutenarekiko konpromiso maila handia. Baino era berean, eta balore postmaterialistekin bat eginez,

berebiziko garrantzia du hau aurrera eramateko nork bere osasun fisiko eta mentala ongi zaindua izateak. Eta hemen sartzen da aisialdirako denboraren zainketa.

Gauzak horrela, eta lan baldintzei buruz esandakoa laburbiltze aldera, zera azpimarratu daiteke: soldataren duintasuna bermatuta, lanbide heziketako ikasleek askoz garrantzia gehiago ematen dietela elementu postmaterialei (osasuna, kontziliazioa, aisialdia) materialei baino eta hauek direla nagusiki lan baldintzei dagokienez enpresari eskatu dakizkioken elementuak. Hauen zainketa litzake nagusia.

Lanari loturiko aspektu sozialak

Lanari loturiko aspektu sozialek berebiziko garrantzia hartzen dute elkarritzetaturiko pertsonen artean, batik bat, lankideen artean harreman ona izateak, eta oro har, istilurik eta lehiarik gabeko lan-giro egoki bat izateak. Partehartzaile guztiekin, ikasketa eremua gorabehera, oso garrantzitsutzat jotzen duten aspektu bat da hau. Izatez, askok garrantzi maila altuenean kokatzen dute alor hau, lanean igarotzen den ordu kopuru altua dela eta, lanean gustura egotea zeinen ezinbestekoa den adierazita.

Hala, datu kuantitatiboek adierazten dutenez, errespetatua izatea (9,21), nagusiarekin zein lankideekin errespetuzko harremana edukitza (9,14), lankide, nagusi, laguntzaile nahiz bezeroekin harreman ona izatea (9,09) eta lankideen artean onartua sentitzea (8,96) dira gehien lehenetsi diren itemak hurrenez hurren.

Datu kualitatiboek aurrez esandakoa berresten dute, jarraian jasotzen dena bezalako adierazpenak ugariak izan dira: “*lo más importante es el ambiente.*” Are gehiago, zenbaitek %50eko, %70eko, eta baita %90eko garrantzia ere ematen diote langiroari, eta oro har, soldatari baino pisu gehiago ezartzen diote; azken honen froga gisa, iraganeko lan bat giro txarra zela medio utzi zuen pertsona baten kasua daukagu, soldatarekin eta gainerako lan baldintzakin ados zegoen arren. Bestetik, gustukoa ez den lan bat ere giro onari esker errazago egin daitekeela dio inork, eta langiro atsegindun lan monotono aspergarri bat lehenesten duenik ere badago, langiro txardun lan dinamiko eta erronkari baten aurrean, “*lanera gogo gabe joatea baino gauza okerragorik ez dago*”-ela baieztatuz.

Partehartzaileen hitzek bestalde, hizpide dugun langiroak aspektu sozialak gainditzen dituela islatzen dute, lan harremanek beste zenbait arlotan positiboki (edo negatiboki) eragin dezaketela adieraziz. Zenbaitentzat, euren sektoretan talde-lana ezinbestekoa dela ohartuta (zurgintzan esaterako), garrantzitsua soilik ez, lan-harreman onak izatea

ezinbesteko baldintza bilakatzen dela esan liteke. Era horretan, lankideen arteko harremanak lan eraginkortasunarekin lotzen dituzte, elkarren artean ondo moldatzeak koordinazio egokiago bat dakarrela argudiatuz. Beste batzuek, osasuna ere aipatzen dute langiroari atxikitzen zaion aspektu gisa; izan ere, argi ikusten dute lanean onartua eta errespetatua ez sentitzeak, etengabeko lehiak eta kidetasun faltak, edota jazarria izateak, osasuna kaltetu dezakeela. Ez da harritzeko tankerako iritziak azaldu izana, batik bat estresa, depresioa, edota autoestima arazoak bezalako buru-osasun gaitzetan arreta jarri gero.

Ez da ahaztu behar gainera, aurrez aipatu den gisan, bai eztabaidea taldeetan eta bai inkestetan lehenetsi diren beste zenbait lan alorrek ere, badutela lan harremanekin nolabaiteko zer ikusia. Esate baterako, enpresa txikien alderdi positibo bezala, nagusien eta langileen arteko gertutasuna eta konfiantza giroa aipatzen da batik bat. Ordutegien kasuan ere, lanaren eta zaintzaren arteko bateragarritasunari buruz hitz eginez bereziki, giza harremenei dagokion ulermenaren beharra sarri atera den kontu bat da, malgutasun elementuak abian jartzeko garaian.

Honenbestez, ondoriozta liteke, lan giroak beste alderdi askorekin zer ikusia baduela, eta oro har, lan harreman onek lan baldintzak hobetzen dituztela zenbait aspektutan. Partehartzaileak gainera, oso jakitun dira lanean igarotzen den denbora eskergaz. Arrazoi hauek guztiak direla eta, lan harremanek funtsezko tokia hartzen dute pertsona hauen lehentasunen artean, ondoko esaldiak primeran biribiltzen duelarik antzematen den sentipen nagusia: “*puedes estar ganando un montón pero si vas estar con gente con la que te llevas mal que no os aguantáis, pues mal.*”

Dena den, esan beharra dago positiboa konsideratzen duten arren, orokorrean ez dutela uste lan esparrutik kanpo lankideekin harremana izatea ezinbestekoa denik. Honen adierazle, “lantegiak lanetik kanpo harreman sozialak sustatzea” itema lehentasunen zerrendaren atzekaldean kokatzen da, 7,49-ko balorazioarekin. Eztabaidea taldeetan esandakoek ere datu hau primeran islatzen dute, “*behar*

beharrezkoa ez da”, edota “*no es necesario, pero estaría bien*” bezalako esaldietan ikus daitekeen gisan.

Zentzu honetan, lantegiei egin dakioken eskakizun bat baino, lankideen arteko lanetik haratagoko harremana berez edo era naturalean sortu beharko litzatekeen zerbait bezala ulertzen dutela antzeman daiteke, ona bai, baina ez ezinbestekoa: “*sortzen bada hobeto*”, “*sortzen bada ondo, bestela...*”. Hau da, ez dute lantegien eskuhartzearen beharrik ikusten kanpo-ekintzak sustatzeari dagokionez, eta aldiz, lan harreman onetatik abiatuz naturalki garatzen den (edo garatzen ez den) aspektutzat jotzen dute lan esparrutik kanpo lankideekin aisialdia partekatzea. Baten batek gainera, noizean behin tankera honetako lankideen arteko topaketak gauza ona direla konsideratzen duen arren (afari edo bazkariak direla, txangoak direla...), ez duuste maiz egitea komenigarria den zerbait direnik, liskarrak sortzeko abagunea ere areagotzen dela argudiatuz, askotan elkartzea kaltegarria ere izan daitekeela egotzita.

Egiten den zereginarekin loturiko aspektuak

Egiten den zeregin zehatzarekin loturiko aspektuei dagokienez, formakuntza jarraia izatearen aukera da gehien balioesten den kontuetariko bat. Kasu honetan, partehartzaileek ahobatez berresten dute lantegiek honelako aukerak bermatzearen garrantzia, edozein lan esparrutan eguneratzeak duen ezinbestekotasuna azpimarratuz. Inkesten emaitzen arabera, atal honetan bigarren lehentasun mailan kokatu dute partehartzaileek lanean egonda ikasten jarraitzeko aukerak izatea, 8,77ko balorazioarekin.

Afera honetan gehiago sakonduz, formakuntza jarraia batzuek inbertsio gisa ikusten dute, merkatua etengabe aldatzen ari dela kontuan izanik, langileak edozeren aurrean prest egon behar dutela aldeztuz. Gainera, formakuntza aukera lankideak pozik eta motibaturik mantentzeko baliagarria ere badela sinesten dute, lan-mailan igo ahal izateko ezinbesteko ezaugarria dela konsideratzeaz gain.

Elkarriketatuko ikasle guztiak aipatzen duten arren, batik bat ileapainketa ikasleen artean hartzen du presentzia gehien kontu honek, formakuntza etengabea lantegiei eskatzeko elementu oinarrizkoenak bat bilakatzen delarik kasu honetan. Moda eta estilismo munduaren aldakortasunaz gain, kontu hauei buruzko interneteko edukien ugaritasunari ere egiten diete erreferentzia hizpide dugun gaiaren inguruan aritzean, gaur egun bezeroek ile mozketan, tinte eta orrazkeren inguruan asko dakitela baieztatuz. Argudio honi, ileapaindegiko produktuen irismen erraza ere gehitu ahalko genioke, edozein supermerkatutan eta baita denda espezializatuetan ere, edonoren eskura baitaude mota guztiako tramankuluak zein ilerako produktu kimikoak. Beraz, ikasle hauen kasuan formakuntza jarraia premia haundi bat konsideratzen dela antzeman daiteke, pertsona baten esanetan: “vital”. Honen adierazle, badugu iraganeko lana formakuntza aukera ezagatik utzi zuen pertsona baten kasua. Are

gehiago, ileapainketa ikasleen artean lantegi handiekiko lehenespena ere nabaria da, hain juxtu, formakuntza jarraia izateko aukera zabalagoa dela medio, besteak beste.

Inkestetan emaitzetara itzuliaz, aipamen kopuruaren hurrenkeran erdialdean, 8,33ko balorazioarekin kokatzen den itemak funtzió aniztasunari egiten dio erreferentzia; hau da, betetzen den lanpostuak funtzió anitzak aurrera eramateko aukera bermatzearen garrantziari. Elkarrizketa taldeetan ere izan du bere isla eskakizun honek, “*lan ezberdinak egiten uztea*” esaldiak ondotxo adierazten duenez. Txandakako lana ezartzearen aukera aipatzen duenik ere badago, alegia, funtzió zehatz bat betetzen ordu batzuk igaro ostean, beste postu batera aldatzeko abagunea edukitzea. Aspektu hau bereziki baloratzen da lanak monotonotzat hartzen diren kasutan (inkestetan ere, iniziatiiba aukerak eta lana errepijakorra ez izateak 8,46ko balorazioa lortu du erantzunetan, funtzió aniztasunaren aurretik kokatuz juxtu hurrenkeraren erdian), eta zalantza barik, formakuntzarekin eta gauza berriak ikastearren garrantziarekin dago lotuta.

Galdera sorta honetan inkestetan balorazio baxuena (7,33) lortu duen itema pertsona talde baten liderra izateko aukera izan da. Eztabaidea taldeetan honen inguruan galdegin denean, desberdintasunak atzeman dira ikasketa eremuka. Hala, ileapainketa ikasleen artean hautu edo desira nabaria da norbere ileapaindegia martxan jartzea. Gainontzeko kasutan aldiz, pertsona batzuk euren lidergo gaitasunak garatzeko prest agertzen diren bitartean, beste batzuk ezezkoa diote, nahirik ez dutelako batetik, edota horretarako gaitasunik ez dutela uste dutelako bestetik.

Lidergotzaren kontzeptuak berak nahasmen edo desadostasun nahiko sortu ditu partehartzaileen artean. Batetik, lider hitzak berak izan ditzakeen konnotazio anitzak direla eta, nolabaiteko gaitzespena sortzen duela antzeman daiteke, autoritatearekin eta botere harremanekin lotzen denetan. Bestetik, ekintzaileak diren eta autonomiaz lan egiten duten langileen beharra ere azpimarratzen da, zenbaitetan ezaugarriok biltzen dituen pertsona (izan nagusia ala ez), jotzen delarik lidertzat. Dena dela, lider

natural eta demokratikoien aldeko joera nabaria da partaide batzuengan, jerarkiak eta autoritarismoak errefuxatzen dituzten heinean. Hitzok argi erakusten duten gisan: “*lider bat bai, baina zapaltaile bat ez.*” Honen aurrean beraz, lider baten figura edo iniziatiabadun norbait daukan lan talde horizontalak hobesten direla baiezta genezake.

Azkenik, taldean lan egiteari gagozkiola, inkestek datuek 7,8ko balorazioan kokatzen dute honen garrantzi maila, hurrenkeraren behikaldean. Beraz, ezin esan genezake partehartzaileek pisu berezia eman diotenik elemenu honi. Dena den, eztabaidea taldeetan hizpide izan den gai bat izan da, eta bertan esandakoak ekarriz, hobeto uler genitzake inkestako datuaren zergatiak. Elkarrizketatuen esanetatik ondoriozta daitekeenez, lana indibiduala ala taldekoa den lan-arloaren arabera aldakorra den zerbaite da partehartzaileen ustetan, eta beraz, horren menpe dagoen halabeharrezko zerbaite, lantegiaren erabakia baino gehiago. Hala ere, elkarrizketatuek argi dute lantegiak kolektibotasunaren menpe daudela nolabait; hots, lana indibiduala izan arren, lantegia ez duela pertsona bakarrak ateratzen aurrera.

Honenbestez, joera ezberdinak topa ditzakegu elkarrizketatuen kontakizunetan: talde lana garrantzitsua konsideratzen duten lan arloetako ikasketak gauzatzen ari diren pertsonek, talde lanaren sustapena lantegiei eskatu beharreko elementu konsideratzen dute esplizituki; gainontzekoek, akaso talde lanaren sustapena bere horretan ez, baina filosofia edo ikuspegia kolektiboa begi bistatik ez galtzearen garrantzia azpimarratzen dute, indibidualaren eta kolektiboaren arteko etengabeko tentsio, harreman eta elkarreragina azaleratuz.

Ondorioak

Honenbestez, aurrera eramandako ikerketa honen helburu nagusia, lanbide heziketan dauden ikasleek haien lan ibilbidea garatzeko zer nolako enpresa nahiko luketen aztertzea izan da; kontuan izanik enpresen eskakizunak sarri direla hizpide, etorkizuneko langileen itxaropena bera abiapuntutzat hartzen duen ikuspegia garatzea funtsezkotzat jo da.

Afera hau jomuga izanik, ikerketa honetatik eratortzen den ondorio nagusiena, ezbairik gabe, mendebaldeko gizarte garaikideen balio aldaketarekin bat datorren diskurtsoaren nagusitasuna da; hau da, partehartzaileen desira, itxaropen eta lehenespenak bat datozen balio ukiezinak erdigunean kokatzen dituen paradigma postmaterialistarekin. Oinarrizko premisa honetatik abiatzen dira jarraian sakontasun gehiagoz zehaztuko diren ondorioak, postmaterialismoaren zutabe diren elementuak (bizi kalitatearen garrantzia hazkunde ekonomikoaren aurrean, giza-harremanen balioa eta elkartasuna, norbere bizitzako esparruen inguruan erabakitzeko aukera handiagoa izateko nahia,...), lan munduari zuzenki lotzen diren aspektuetan islatzen direlarik partehartzaileen erantzunetan. Bai inkestetan jasoriko emaitzak, eta bai eztabaidea taldeetan agertu diren diskurtsoak norabide honetan doaz, elkar indartzen eta elikatzen direlarik.

Zehaztasunetara joaz, agenda politikoetan gero eta garrantzia gehiago duen berdintasunaren aferak, kokaleku pribilegiatua du ikerketaren parte izan diren ikasleen artean. Lan ordainduaren eta zaintza lanen arteko bateragarritasunaren garrantzia ahobatez berresten den zerbait da, mendebaldeko gizarteetan gaur egungo kezka handietako bat dena islatzen delarik hala. Emakumeak hezkuntzan zein lan merkatuan zabalki sartu izanak, ez du oraindik bere ordaina izan bizitza aurrera ateratzeko ezinbestekoa den zaintzaren esparria modu jasangarrian bermatzeko garaian. Politika

publikoak eremu hauen kudeaketan saiakerak egiten dabiltsan bezala, ikerketako partaideek ere bat egiten dute ardura hauekin, lantegiek kontziliazio egokia ahalbidetzearen garrantzia mahaigaineratzen duten heinean. Zaintza esparruaz haratago, norbere bizitza proiektua asetasunez garatzeko aukera izatea eskakizun nabaria da elkarritzeturiko ikasleengan, denbora librearen balioa ahobatez aitortzen dutelarik. Ordutegiaren kontuak zentzu honetan, soldatak berak baino garrantzia handiago hartzen du, lan konpromezuei pisua kendu barik, aisialdiaren eskubidea aldarrikatuz. Norbere osasuna lehen planoan kokatzen da modu honetan, elkarritzetatuak erabat kontziente baitira lan ordu amaigabeek ekar ditzaketen nahasmen fisiko nahiz psikikoez.

Osasunaren eta norbere ongizatearen garrantziari loturiko beste adierazgarri bat, langiro onari eta lan-harremanei eskaintzen zaien arreta da: lankideen arteko elkartasuna, nagusien ulemerna eta errespetua, onartua eta baloratua sentitzea... ezinbesteko klabe bilakatzen dira elkarritzetatuak ahotan. Elementu hauek erabat lotzen dituzte bai osasunarekin, eta bai aurrez aipatauriko aisialdi eta kontziliazioarekin ere, gainontzeko eskakizunok bermatzeko funtsezko oinarri gisa egikaritzen delarik langiro ona edukitzea. Hari berari tiraka, jerarkiekiko, botere harreman nabarmenekiko nahiz lidergo autoritarioekiko erabateko arbuaoa antzeman dezakegu, lan harreman horizontalak nahiago diren bitartean. Lidergoarekiko errefuxa erabatekoa ez izan arren, lider demokratikoak lehenesten dira, ez direnak zertan nagusiaren figuran barnebildu. Hala, gizarte postmaterialisten beste ezaugarri bat den partehartze handiagoaren nahiarekin egiten dute bat elkarritzetatuak, erabakiguneak demokratizatzearen garrantziaz ohartuta. Honez gain, pentsamendu postmodernoaren oinarrietako bat ere adierazten dute partehartzaileek kontu honekin, hots, dikotomia baztertzaleen deuseztatzea. Goian/behean, gehiago/gutxiago, nagusi/langile bezalako binomio hierarkia adierazleak lausotzearen aldeko joera nabari da beraz, langileen ongizatea bermatuko duen ezaugarri gisa. Dena den, lan harremanen garrantzia gorabehera,

utilitarismo puntu bat ere antzeman daiteken elkarrizketatuen esanetan, batetik dikotomien ezabatzearen joera egonagatik ere, bestetik primeran bereizten baitituzte lan esparrua eta eremu pertsonala; hala, lankideen arteko harremanak bere espazio mugatua topatzen du lantegian bertan, handik haratago zabaltzea beharrezkoa konsideratzen ez den bitartean.

Azkenik, eta balio postmaterialistekin (zein osasunarekin) bat eginez beste behin, aipagarria da lan segurtasunak hartzen duen pisu itzela. Partaideek ez diote zentzurik ikusten soldata altu bati, berau osasun arazoak konpontzen erabili beharko badute. Ondotxo dakite lantegian segurtasun baldintza eta bestelako baldintza fisiko egokiak edukitzea bizi-kalitatearen berme dela, eta lan esparrua, hainbeste balioesten den ongizate orokor hori ahalbidetzeko garaian ezinbesteko eremu bilakatzen dela.

Gauzak honela, elementu ukigarri edo materialak gainditzen dituen ongizatea bilatzen dela esan genezake; behin segurtasun materiala bermatuko duen soldata duina ziuratuta, osasuna, aisiaidzia, edota kontziliazioa bezalako elementuek hartzen dute berebiziko garrantzia partehartzaleen erantzunek islatzen dutenez. Izan ere, teoria postmaterialistak berak onartzen duen gisan, balio hauen nagusitasunak oinarrizko beharrizanak asetuta daudenean soilik har dezake zentzua. Honenbestez, oro har antzematen den eskakizunak ez du soldata altua jomuga, eta bizitzaren beste alderdirik kontuan izango ez duen ibilbide profesionala garatze soilak ere garrantzia galtzen du, ez baititu asebetetzen elkarrizketatuek lehenetsi dituzten aspektuak. Lantegiek beraz, beharrizan materialak asetuko dituen eskaintzatik haratago kokatu beharko lukete ortzimuga, pertsonaren garapena eta ongizatea bere osotasunean kontuan hartuko duen ikuspuntuaz; partehartzaleek argi dute gaur egungo neurri eta politiken arabera, haien eskubideak zein diren, eta argi dute ongizate integral hori egikaritzeko hauek errespetatzea funtsezko zeregina dela.

1 eranskina: galdetegia

EXPECTATIVAS SOBRE EL MERCADO LABORAL DE LOS ESTUDIANTES DE FORMACIÓN PROFESIONAL GUIPUZCOANOS

*Tanto la carta como el cuestionario deben ser bilingües, euskera/castellano.

**El cuestionario se diseñará en formato de Google Formularios.

Carta de presentación del estudio

Ikaslan (la red de centros públicos vascos de Formación Profesional), junto con un grupo de investigadores de la Universidad de Deusto, está realizando un estudio entre jóvenes estudiantes de formación profesional de grado medio y superior que residan en Gipuzkoa. El estudio analiza un tema que seguro que te interesa: **las expectativas de un estudiante de FP ante su inserción en el mercado laboral**.

Ahora tú puedes ayudarnos. La dirección del centro en el que estudias te habrá hecho llegar este cuestionario. TU OPINIÓN ES MUY IMPORTANTE PARA NOSOTROS, porque eres una de las personas seleccionadas para el estudio.

Te pedimos que por favor rellenes el cuestionario tranquilamente. Todas las preguntas son sencillas de entender y muy fáciles de responder, ya que **no tendrás que escribir ninguna frase**. Al responder, recuerda que no hay respuestas buenas ni malas. Por eso te pedimos que nos respondas a todas las preguntas y no dejes ninguna en blanco.

Y, por supuesto, no te pedimos ningún dato confidencial que pueda identificarte (a menos que quieras participar en el sorteo que se indica al final de esta carta). Además, los datos del estudio serán tratados globalmente, porque lo

único que nos interesa es saber qué aspectos valoran los estudiantes de formación profesional guipuzcoanos en el momento de su inserción laboral.

Te damos las gracias de antemano, porque con tu ayuda entenderemos un poco mejor vuestras preocupaciones sobre vuestro futuro profesional.

Para agradecer vuestra colaboración, entre las personas que respondáis al cuestionario, y queráis indicarnos una forma de contacto, se sorteará un móvil.

BLOQUE 1

